EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

## HEZKUNTZA


1. Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak ....................................4
2. Garraiatzeko banan banako diru-laguntzak ......................................................................................6
3. Enplegua mantentzeko eta irakasle-plantillak gaztetzeko laguntzak.................................................7
4. Dirulaguntza, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena, Hezkuntzako Sailburuaren 2021eko uztailaren 28ko Agindua (Udalaguntza-2021) aplikatuta ..........................................................................................................9
5. 2021-22 ikasturtean hezkuntza-ituna indarrean duten EAEko ikastetxeentzako dirulaguntzak, ikasleentzako ordenagailu eramangarriak erosteko ........................................................................11
6. Irakasleen prestakuntzarako plana – Bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan 2021-22 ..........................................................................................................13
7. Irakasleen prestakuntzarako plana – Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuak, itunpeko sarean, 2021-22 ikasturterako ......................................................................15
8. Irakasleen prestakuntzarako plana – Ikastetxeko STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak, itunpeko sarean, 2020-21 ikasturterako ......................................................................17
9. Atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat ..........................................................................................................19
10. Postu-deialdia, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek ingelesean murgiltzeko egonaldiak garatzeko..........................................................................................................21
11. Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak (2021-22 ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz..........................................................................................22
12. Laguntzak itunpeko sareko ikastetxeentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten elkarte eta federazioentzat, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan proiektuan parte hartzeko ..........................................................................................................24
13. Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia (EIMA) .......................26
14. Irale programaren baitan 2021. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena..........................................................................................................28
15. Nolega Deialdi Bateratua 2021-22 ..........................................................................................................30
16. Itunpeko ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko proiektuetarako deialdia (Ulibarri)....................32
17. Musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzak .....................................................34
18. 2021-22 ikasturterako laguntzak, 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzat..........................................................................................................36
19. 2021-22 ikasturterako laguntzak, 0 eta 3 urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat ..........................................................................................................38
20. Laguntzak hezkuntza sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Helburua: ijito ikasleentzako hezkuntza-jarduerak garatzea eskola-esparruan ....40

21. Laguntzak helduen hezkuntzako ikasleen elkarteentzat eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzat ....42
22. Laguntzak unibertsitateaz besteko ikastetxeak euren titularitatearen pean dituzten irakaskuntza-kooperatibentzat ....44
23. Laguntzak unibertsitatez besteko ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioentzat ....45
24. Laguntzak EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeentzat, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko ....46
25. Ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntzak ....48
26. Laguntzak, 2021-22 ikasturtean eskolatze osagarriko programak garatzekoak ....50
27. Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak ....52
28. Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide heziketako heziketa zikloak eskaintza partzialean irakasteko ....54
29. lanbide-Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzak ....56
30. Dirulaguntzak Lanbide-Heziketa Dualeko programak garatzeko ikas-ekinezko erregimenean, lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ....59
31. Enpresako egonaldi-beketarako deialdia, lantokiko prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat, 2021-2022 ikasturtean ....61
32. Irakasleak prestatzeko jarduerak IKPP ....63
33. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza 2021 ....65
34. ERASMUS + 2021 ....67
35. Atzerriko hizkuntza indartzeko programa ....69
36. Berrikuntza eta ekintzailetza proiektuak egiteko dirulaguntza ....71
37. Jarduketa-lerroak 2021 ....73
38. Kultura ekintzailea ....75
39. Unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekak ....76
40. Mugikortasun-zailtasun bereziak dituzten unibertsitarioen garraiorako laguntzak ....78
41. Nazioarte mailako mugikortasun-programarako beka osagarriak ....79
42. Ikasiker Lankidetza Bekak ....80
43. Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntzak ....82
44. Doktoreak diren ikertzaileentzako doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako laguntzak ....84
45. Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroez bestelakoetan egonaldiak ....86
46. Basque Visiting Fellow. Cambridgeko Unibertsitateko Clare Hall-en ikertzaile bisitari gisa aritzeko dirulaguntza (2021-2022) ....88
47. Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun programa ....89
48. IKERMUGI ....91
49. Euskadi Ikerketa Saria ....92
50. Kongresuak eta zientzia-bilerak egiteko laguntzak ....93

51. Oinarrizko edo/ta aplikatutako ikerketa proiektuak ........ 95
52. Unibertsitate-Enpresa Proiektuak ........ 97
53. Ekipamendu zientifikoa ........ 99

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak**

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko irailaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2020-2021 ikasturterako. 2020ko EHAA, 199. zk.

AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturterako. 2021eko EHAA, 146. Zk.1eko EHAA, 146. Zk.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko irailaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2020-2021 ikasturterako.

AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturterako.

Ikasleen garraiorako banan-banako dirulaguntzen deialdiaren lehenengo behin-betiko Ebazpena. 2021/2022 ikasturtea.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hezkuntzara berdintasun-egoeran iristeko dauden mugak edo desorekak konpentsatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020-21 ikasturteko deialdiaren onuradunak: 116.309 unibertsitateaz kanpoko ikasleak.

Ebazpena:

| Banakapena | 2020/21 ikasturtea |
|---|---:|
| Eskola-materiala/kuota | 95.622 |
| Joan-etorriak | 9 |
| Irakaskuntza | 533 |
| Jantokia | 44.022 |
| Oinarrizko beka | 12.854 |
| Zenbateko aldakorra | 17.375 |
| Errenta zenbateko finkoa | 5.908 |
| Bizileku zenbateko finkoa | 61 |
| Bikaintasun akademikoa | 3.917 |
| HLBP (Berreziketa) | 51 |
| **Guztira** | **180.352** |

2021eko ekitaldiko aurrekontua %87,80a betearazi da: alde batetik, 2020-21 ikasturteko deialdiko zati bat finantzatzeko eta, bestetik, 2021-22 ikasturteko deialdiko beste zati bat.

2021-22 ikasturteko deialdia bukatu gabe dago: zati bat ebatzi eta finantzatu da 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren kontura, eta ebatzi gabe dagoena 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura finantzatuko da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak | 121.000 | 116.309 |
| Laguntza kopurua | 192.000 | 180.352 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Garraiatzeko banan banako diru-laguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2020ko abenduaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira eskola-garraiorako banakako esleipenak 2020-2021 ikasturterako, maila hauetan ari diren ikasleentzat: Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketa. 2020ko abenduaren 28koa EHAA, 259. Zk. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2020ko abenduaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira eskola-garraiorako banakako esleipenak 2020-2021 ikasturterako, maila hauetan ari diren ikasleentzat: Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren maila, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketa.<br><br>Ikasleen garraiorako banan-banako dirulaguntzen deialdiaren behin-betiko Ebazpena. 2020/2021 ikasturtea. |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Sailak antolatutako eskola-garraio zerbitzura egokitzen ez diren eta garraiatzeko eskubidea duten sare publikoko ikasleen eskola-garraioa diruz laguntzea. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2021eko ekitaldiko aurrekontua %76,92an gauzatu da, eta 2020-21 ikasturteko deialdi-agindua finantzatzeko erabili da.<br><br>2020-21 deialdiko datuak:<br><br>Emandako laguntzen kopurua: 1.908<br><br>Emandako laguntzaren batez besteko zenbatekoa: 403,16 € |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak | 2.000 | 1.908 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enplegua mantentzeko eta irakasle-plantillak gaztetzeko laguntzak**

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, ikastetxe pribatu itunduetarako laguntzen deialdia egiten duena, enplegua mantentzeko eta irakasleen plantillak gaztetzeko sinatutako akordioen esparruan, hurrengo urteetan beherakada demografikoa gertatzea aurreikusten dela kontuan izanik.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, ikastetxe pribatu itunduetarako laguntzen deialdia egiten duena, enplegua mantentzeko eta irakasleen plantillak gaztetzeko sinatutako akordioen esparruan, hurrengo urteetan beherakada demografikoa gertatzea aurreikusten dela kontuan izanik.

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 14koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez handitzen baita agindu honetan adierazitako zenbatekoa: 2020-2021eko ikasturterako itunpeko ikastetxe pribatuetarako laguntzen deialdia egiten duen agindua, enplegua mantentzeko eta irakasleen plantillak gaztetzeko sinatutako akordioen esparruan, datozen urteetan beherakada demografikoa gertatzea aurreikusten dela kontuan izanik.

Emate - ebazpenak banakakoak dira eta Tramitagunean erregistratuta daude.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

a) Irakasleak birkokatuz enpleguari eustea.

2020-21 ikasturtean itundutako ikasgelak gutxitzearen ondorioz lanpostua galtzen duten irakasleen antzinatasuna ordaintzea, betiere birkokatzeari ekiten bazaio, eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak, birkokatzea ezinezkoa denean.

b) Irakasleen plantilla gaztetzea, txanda-kontratuari lotutako erretiro partzialaren bidez.

Ugazaben kuotaren gainkostuak Gizarte Segurantzari ordaintzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi honekin honako emaitza hauek lortu dira:

- Enplegua mantentzeko diruz lagundutako irakasleak: 1
- Plantilla gaztetzeko diruz lagundutako irakasleak: 325

Aurrekontu-exekuzioa 1.553.224,29 eurokoa izan da, eta 2.360.000 eurokoa, berriz, 2021erako aurrekontuan jasotakoa.

| |
|---|
| Deialdiak, funtsean, ikastetxe pribatu itunduetan plantillak gaztetzen lagundu du, kontratazio mota horiek erretiro partzialen aurrean ikastetxeei eragiten dieten gainkostua diruz lagunduz, eta, horrela, irakasle berriak kontratatzen lagunduz. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Irakasle - Kopuru | 30 | 1 |
| Txanda-kontratuari lotutako erretiro partzialak | 352 | 325 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Dirulaguntza, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena, Hezkuntzako Sailburuaren 2021eko uztailaren 28ko Agindua (Udalaguntza-2021) aplikatuta**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, iragartzen da Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten duena (Udalaguntza-2021).

Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako higiezinetan obrak gauzatzeko eta karpak hornitzeko eta instalatzeko gastuak finantzatzeko laguntzen deialdia (Udalaguntza-2021).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

a) Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 232 artikuluan adierazitakoak; (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egin zen.), lehen ezarpeneko, kontserbazioko eta mantentze obrak izan ezik.

b) Otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua betetzea helburua dutenak. Errege-dekretu horren bidez ezartzen dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ematen duten zentroen gutxieneko baldintzak.

c) Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea betetzea helburu dutenak, eta baita 173/2010 Errege Dekretua betetzea ere, otsailaren 19koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutakoa) aldatzen duena, desgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasunari eta ez-diskriminazioari dagokionez.

d) Ikasgelak sortu edo eraberritzekoak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

363 dirulaguntza eskaera onartu dira, 93 udaletxeek egin dituzte eskaerak, 182 ikastetxeetan obrak egiteko. Finantziazioaren zenbateko osoa 8.803.760,64 euro, izan delarik.

| LH | Udaletxe kopurua | Ikastetxe kopurua | Eskabide kopurua | Dirulaguntzak |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 16 | 35 | 62 | 1.625.762,24 € |
| Bizkaia | 44 | 96 | 209 | 4.421.158,31 € |
| Gipuzkoa | 33 | 51 | 92 | 2.756.840,09 € |
| **Guztira** | **93** | **182** | **363** | **8.803.760,64 €** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Udaletxe onuradunak | 113 | 93 |
| Ikastetxe onuradunak | 208 | 182 |
| Eskabide kopurua | 415 | 363 |
| Dirulaguntzak | 10.500.000 € | 8.803.760,64 € |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2021-22 ikasturtean hezkuntza-ituna indarrean duten EAEko ikastetxeentzako dirulaguntzak, ikasleentzako ordenagailu eramangarriak erosteko**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko azaroaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzetarako deialdia egiten baitzaie hezkuntza-ituna 2021-2022 ikasturtean indarrean duten EAEko ikastetxeei ikasleentzako ordenagailu eramangarriak eros ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 30(e)koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez handitu egin baita Hezkuntzako sailburuaren 2021eko azaroaren 23ko Aginduaren zenbatekoa, aurrekontu-kreditua areagotuz. Agindu horren bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie hezkuntza-ituna 2021-2022 ikasturtean indarrean duten EAEko ikastetxeei, ikasleentzako ordenagailu eramangarriak eros ditzaten.

EBAZPENA, 2022ko otsailekoa, Azpiegituren, Baliabideen eta Teknologien zuzendariarena, 2021-2022 ikasturtean indarrean dagoen hezkuntza-hitzarmena duten Euskal Herriko Irakaskuntza Zentroentzako laguntzak ematen dituena, ikasleentzako ordenagailu eramangarriak eskuratzeko, AGINDUA aplikatuz. 2021eko azaroaren 23koa, Hezkuntza sailburuarena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ituna indarrean duten ikastetxeetarako laguntzen agindu honen helburua da ikastetxeek 2021 eta 2022 ekitaldietan CHROMEBOOK eta WINDOWS ordenagailu eramangarrien erosketa finantzatzea, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek erabil ditzaten aurrez aurreko formatuan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

210 eskaera onartu dira guztira, 210 ikastetxe eskatzaileri dagozkienak.. Laguntzen zenbatekoa, guztira, honako hau da: 21.169.928,96 €

| Lurralde historikoa | Ikastetxe kopurua | Eskaera kopurua | Dirulaguntza (eurotan) |
|---|---|---|---|
| Araba | 30 | 30 | 3.259.687,15 |
| Bizkaia | 104 | 104 | 8.269.610,74 |
| Gipuzkoa | 76 | 76 | 9.640.631,07 |
| **Guztira** | **210** | **210** | **21.169.928,96** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopurua | 210 | 210 |
| Eskaera kopurua | 210 | 210 |
| Dirulaguntza (eurotan) | 15.300.000 | 21.169.928,96 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakasleen prestakuntzarako plana – Bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan 2021-22**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egi¬ten baitzaie unibertsitatez kanpoko ikasketak –heziketa-zikloak izan ezik– ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei hezkuntza-bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2021-2022ko ikasturtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baitzaie unibertsitatez kanpoko ikasketak –heziketa-zikloak izan ezik– ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei hezkuntza-bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2021-2022ko ikasturtean.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira 2021eko ekainaren 30eko Aginduaren babespean emandako dirulaguntzak, herritarrek horren berri izan dezaten.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzak ematea unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako edozein maila eta mota ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren titulartasun publikoko ikastetxeei, heziketa-zikloak soilik ematen dituztenei izan ezik, baldin eta 2020-21 ikasturtean berrikuntza-proiektu baterako diru-laguntza jaso badute, Curriculuma Prestatzeko edo Berrikuntzako Integralen modalitatean, Hezkuntza Bikaintasuneranzko Prestakuntza Proiektuen deialdiaren barruan, eta proiektua 2021-22 ikasturtean amaitu nahi badute.

Azkenik, ez zen egin ikastetxe itunduetan berrikuntzarako prestakuntza-proiekturik, dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusitako hirugarren modalitatea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiaren hasierako zuzkidura 66.000,00 eurokoa da, honela banatuta:

- Berrikuntza-proiektu integralak: 45.000,00 euro
  - 9.000,00 euro Arabarako,
  - 21.000,00 euro Bizkaian
  - 15.000,00 euro Gipuzkoan
- Curriculuma aberasteko proiektuak
  - 6.000,00 euro Arabarako,

- 10.000,00 euro Bizkaian
- 5.000,00 euro Gipuzkoan

Azken esleipena honako hau izan da:

- Berrikuntza-proiektu integralak: 39.500,00 euro
  - 9.000,00 euro Arabarako (3 proiektu)
  - 20.500,00 euro Bizkaian (9 proiektu)
  - 10.000,00 euro Gipuzkoan (4 proiektu)
- Curriculuma aberasteko proiektuak 9.000,00 euro
  - 6.000,00 euro Arabarako (2 proiektu)
  - 3.000,00 euro Bizkaian (2 proiektu)
  - 0,00 euro Gipuzkoan (0 proiektu)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe itunduetako berrikuntza-proiektu integralak: | 30 | 17 |
| Itunpeko ikastetxeetako curriculuma aberasteko proiektuak | 15 | 4 |
| Berrikuntzarako prestakuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan | 80 | 0 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakasleen prestakuntzarako plana – Ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuak, itunpeko sarean, 2021-22 ikasturterako**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, 2021-2022 ikasturtean ikastetxeko hizkuntza-proiektuekin lotutako prestakuntza- jarduerak egin ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, 2021-2022 ikasturtean ikastetxeko hizkuntza-proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 8koa, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira 2021eko ekainaren 16ko Aginduaren babespean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Finantzaketa ematea ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzera bideratutako hezkuntza-prestakuntzako eta -berrikuntzako proiektuei. Horietan unibertsitateaz kanpoko irakasleek, heziketa-zikloak kenduta, parte hartzen dute eta itunpeko sareko ikastetxeetan eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoetan egiten dira.

Itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei zuzentzen da deialdia.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiari esleitutako 1.332.000 euroko aurrekontu-zuzkidura (444.000 euro 2021ko ekitaldirako eta 888.000 euro 2022eko ekitaldirako) agortu egin da.

Proiektu horietan parte hartu duten ikastetxe eta irakasle kopurua hauxe izan da:

| Elkartuak | | Partehartzaileak | |
|---|---|---|---|
| Zentroak | Irakasleak | Zentroak | Profesorado |
| 274 | 12.004 | 185 | 7.527 |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan, A modalitatea | 150 | 141 |
| Proiektu eleanitzak itunpeko ikastetxeetan, B modalitatea | 25 | 44 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakasleen prestakuntzarako plana – Ikastetxeko STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak, itunpeko sarean, 2020-21 ikasturterako**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuentzat, 2021-2022 ikasturtean STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak garatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuentzat, 2021-2022 ikasturtean STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak garatzeko.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira 2021eko uztailaren 7ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikastetxe pribatuei dirulaguntzea, 2021-2022 ikasturtean STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics) ereduko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak egin ditzaten.

Helburuak:

- Heziketa eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea hezkuntza-etapa guztietan, horreta¬rako eragile sozioekonomikoak ere inplikatuz.
- Bokazio eta helburu profesionalak inspiratzea STEAM esparruan, arreta berezia jarriz neska ikasleengan, etorkizuneko erronken aurrean prestakuntza egokia jaso dezaten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021-22 ikasturteko deialdirako aurrekontu-zuzkidura, guztira, 343.750 eurokoa izan da.

Honako hau izan da esleitutako azken emaitza, lurraldeka eta proiektu bat onartu zaien ikastetxeen kopurua eta emandako diru-laguntza kontuan hartuta:

| Lurralde Historiko | Ikastetxeen z. | Emandako dirulaguntza |
|---|---|---|
| ARABA | 10 | 29.886 € |
| GIPUZKOA | 25 | 71.876 € |
| BIZKAIA | 49 | 140.604 € |
| **TOTAL** | **84** | **242.366 €** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak STEAM | 120 ikastetxe | 84 ikastetxe |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko urriaren 14koa, Hezkuntzako sailburuarena, atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoez finantzatzen diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maile¬tan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleei zuzendua (L3. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

ORDEN de 14 de octubre de 2021, del Consejero de Educación, por la que se convocan plazas para la realización de cursos de inglés, francés y alemán, en el extranjero, para alumnos y alumnas de 3.º y 4.º cursos de Enseñanza Secundaria Obligatoria y de 1er y 2.º cursos de Bachillerato, matriculados en centros sostenidos con fondos públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (L3. Bilingüismo en el marco de una educación plurilingüe).

Hizkuntza-ikastaroak atzerrian. 2022ko uda. DBH eta Batxilergoa. Deialdiaren behin-betiko ebazpena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

548 plaza deitu ziren Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Irlandan egonaldiak egiteko eta ikastaroak egiteko 2022ko udan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat, baldin eta ikasle horiek funts publikoekin finantzatutako EAEko ikastetxeetan matrikulatuta badaude.

Egonaldien kostuak Hezkuntza Sailak eta ikasleek finantzatuko dituzte. Egonaldi batean parte hartzen duen ikasle bakoitzari 170 euro (1. tartea) eta 680 euro (2. tartea) emango zaizkio.

Aldi berean, egonaldiak antolatzeko eta kudeatzeko kontratua izapidetzen hasi zen. Kontratua sinatzen denean, apirileko lehen astean amaituko da. Lehiaketa horretan, Erresuma Batuko plazei 4 plaza gehiago gehitu zaizkie, DBHko 2. mailako ikasleentzako matematika-olinpiadako lehenengo lau postuetan daudenentzat. Beraz, guztira 552 plaza daude.

Kontzeptu hauek izango ditu deitutako plaza bakoitzak: joan-etorriko bidaia Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hiriburuetatik ikasleak egonaldia egingo duen herrialdera, bidaia-asegurua, egingo duen hizkuntza-ikastaroaren matrikula eta eskola-materiala, alojamendua, mantenu-gastuak eta ikastaroa emango den zentrorako hiri-garraioa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Esleitutako 548 plazak honela banatu ziren, lurralde historikoaren eta egonlekuaren arabera:

| | **Araba** | | **Gipuzkoa** | | **Bizkaia** | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikasle z. | Gastua | Ikasle z. | Gastua | Ikasle z. | Gastua |
| 1.Ingelesa Irlandan | 27 | 39.366 | 59 | 89.932 | 112 | 170.096 |
| 2. Ingelesa Erresuma Batuan | 28 | 40.764 | 89 | 131.502 | 163 | 248.124 |
| 3.Frantzesa Frantzian | 2 | 2.270 | 22 | 25.480 | 26 | 31.550 |
| 4.Alemaniera Alemanian | 6 | 8.970 | 5 | 5.860 | 9 | 11.670 |
| LH orotara TH | **63** | **91.370** | **175** | **252.774** | **310** | **461.440** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gastu osoa | **805.584 €** | Gastu osoa (Olinpiada matematikoa barne) | **812.816 €** |
| Ikasleak guztira | **548** | Ikasleak guztira (Olinpiada matematikoa barne) | **552** |

Ikasleen eta familien gogobetetze-maila oso handia izan da programaren bizitzan zehar, eta zorionak jaso ditugu zerbitzu honetan. Programak, ahozko jarioa eta hizkuntzaren ulermena hobetzen laguntzeaz gain, parte-hartzaileen hazkunde integralari ere laguntzen dio, askotan atzerriko herrialde batean familiaren etxetik kanpo duten lehen esperientzia baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasleak | 552 | 552 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Postu-deialdia, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek ingelesean murgiltzeko egonaldiak garatzeko**

2.- Araua

Ebazpena, 2021ko apirilaren 22koa, Hezkuntza sailburuordearena, hainbat plaza eskaintzen dituena herri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egin ditzaten

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Ebazpena, 2021ko apirilaren 22koa, Hezkuntza sailburuordearena, hainbat plaza eskaintzen dituena herri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egin ditzaten

Ebazpena, 2021eko ekainaren 18koa, Ikaskuntzako eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariarena, hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egiteko plazak ematen dituena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikastetxe publikoetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat 2.196 plaza deitu ziren, ingelesez murgiltzeko egonaldietan parte hartzeko.

Egonaldien kostuak Hezkuntza Sailak eta ikasleek finantzatuko dituzte. Egonaldi batean parte hartzen duen ikasle bakoitzari dagokion zatia 40 eurokoa izango da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Egonaldi horiek 2021eko abendutik 2022ko ekainera egiten ari dira. Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, joan behar zuten asteetan kontaktu puntual ugari zituzten zentro batzuek ezin izan dute murgilketa egin, eta beste zentro batzuek ordezkatu dituzte.

Garapen-urteak dituen programa da, eta ikastetxeen eta parte hartzen duten ikasleen artean gogobetetasun-maila handia sortzen du, baita hizkuntzaren ikaskuntzan eragin handia ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak | 2.196 | 2.196 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak (2021-22 ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena (2020-2021 ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabili ahal izango dituzte gailu horiek

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko irailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena (2020-2021 ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleek erabili ahal izango dituzte gailu horiek

Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak. 2021-2022ko ikasturtea. Behin betiko Ebazpena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aurrekontua: 2.0000.00,00 euro.

Eskatzaile bakoitzarentzako laguntza 200 eurokoa izan da gehienez, eta horretarako muga izango da justifikatutakoa gailu bakoitzaren fakturaren ordainagiria.

Deialdi honetaz balia daitezke Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko 2020-21eko ikasturteko ikasleak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko zein itunduetakoak, baldin eta eskakizun hauek betetzen badituzte:

a) Ikastetxea “sare_hezkuntza gelan” izeneko sarean egotea 2014-15eko ikasturtetik aurrera.
b) Ikasle onuradunak unibertsitateaz kanpoko mailarako beketarako edo ikasketa-laguntzetarako deialdiko beka bat jaso izana 2020-21 ikasturtean, eskola-materialaren atalean. Kanpoan geratzen dira aurreko deialdietan diru-laguntza hau bera jaso duten ikasle bekadunak.
c) Berdinak izatea laguntza-eskabideko gailu digitala eta ikastetxeak eskatzailearen talde osorako aukeratutakoa, eta gailu digitala 2020ko azaroaren 16tik aurrera erosi izana.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Ebazpen honen diru-zenbatekoa, guztira 2.000.000 euro, ondoren zehazten den bezala banatuta:

| | Itunpeko ikastetxeak | Herri ikastetxeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Araba | 95.520,00 | 100.199,00 | 195.719,00 |
| Gipuzkoa | 238.580,16 | 87.355,00 | 325.935,16 |
| Bizkaia | 371.397,00 | 184.162,97 | 555..559,97 |
| **Guztira:** | **705.497,16** | **371.716,97** | **1.077.214,13** |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle onuradunak | 10.000 | 6.483 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak itunpeko sareko ikastetxeentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten elkarte eta federazioentzat, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan proiektuan parte hartzeko**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzen deialdia egiten zaie itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuanparte har dezaten, 2021-2022 ikasturtean.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzen deialdia egiten zaie itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuan parte har dezaten, 2021-2022 ikasturtean.

Gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzak. 2021-2022ko ikasturtea. Behin betiko Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gizartean izandako aldaketa eta aurrerapenen eta haien esku jarritako baliabide digitalen ondorioz, gizarteak berak bere jarduera guztietan erabiltzen dituen tresna berriak sartu dira hezkuntza-munduan. Zenbait programak, Eskola 2.0 programak kasu, IKTak gure ikastetxeetan sartu dituzte, eta une honetan sare eta gailu digitalak sartzeak ekarri behar duen aldaketa pedagogikoa eta metodologikoa sustatu nahi da. Baliabide teknologikoak erabiltzeak ikaskuntza-erritmo desberdinetara egokitzea errazten du, berdinen arteko ikaskuntza bultzatzen du, ikasten ikastea sustatzen du eta ikasgelako espazio fisiko-tenporala zabaltzen du ikaskuntza-ingurune birtual eta nonahiko batean. Halaber, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpora zabaltzen da, eta ikasleek eta haien familiek edozein unetan baliabide gehiago izan ditzakete, eduki analogikoen mende soilik egon gabe. Horrek guztiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan baliabide digitalen (metodologikoak eta instrumentalak) errealitate berrira pixkanaka hurbiltzea eskatzen du.

Baliabide digitalen eremuan hain dinamikoa izanik, orain zentro abangoardistak animatu, babestu eta ikusarazi nahi dira, Sare_Hezkuntza izeneko lehen ikastetxe-sarea sortuz. Sare horren bilakaerak joera markatuko du eta hobetzeko bideak erakutsiko dizkie beste ikastetxe batzuei.

| |
|---|
| Ikasteko eta ezagutzeko teknologiak erabiltzeak berekin dakar dagokion ikasturteko programazio didaktikoa osatzen duten ikaskuntza-jarduerak garatzen lagunduko duten hezkuntza-baliabide digitalak bilatzea, hautatzea eta erabiltzea. Proiektu honek berekin dakar ikasleekin egiten diren hezkuntza-prozesuak eraldatzea, Ikaskuntzarako eta Ezagutzarako teknologiak aplikatuz, ikastetxeen eskura jarrita, eta irakasleak prestatzeko hainbat ekintzarekin osatzen da, banaka zein taldean, horiek erabiltzeko eta curriculumean ezartzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak eskura ditzaten. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2021erako zenbatekoa 300.000 eurokoa izan zen, eta osorik agortu da. Deialdian 5 ikastetxe hautatu ziren, honela banatuta: 2 federazio edo elkarte (elkarte bateko 37 ikastetxe eta beste bateko 4) eta 9 ikastetxe, banaka parte hartu dutenak. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Itunpeko ikastetxeak | 50 | 50 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia (EIMA)**

2.- Araua

Agindua, 2021eko uztailaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia egiten duena (EIMA deialdia)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia egiten duena (EIMA deialdia).

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizioari zuzenduriko dirulaguntzak esleitzen dituena (EIMA 1 modalitatea).

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko dirulaguntza-deialdia ebazten duena (EIMA 2.0 modalitatea).

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak sortzeko dirulaguntzak esleitzen dituena (EIMA 4 modalitatea).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitateaz kanpoko mailetarako (ikasleak zein irakasleak) euskarazko material didaktiko inprimatu eta digitalen ekoizpena, argitalpena eta banaketa bermatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| | EIMA 1 | EIMA 2.0 | EIMA 4 | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Aurkeztutako eskabideak | 75 | 23 | 26 | 124 |
| Diruz lagundutako ikasmaterialak | 71 | 17 | 21 | 71 |
| Dirulaguntza jaso duten argitaletxe/produkzio-etxe/lantalde/norbanakoak | 7 | 14 | 9 | 30 |
| Aurrekontua | 500.000 | 400.00 | 85.000 | 985.000 |
| Esleitutako kopurua | 500.000 | 400.00 | 85.000 | 985.000 |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Deialdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua (EIMA 1) | 124 | 71 |
| Deialdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua (EIMA 2.0) | 20 | 17 |
| Deialdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua (EIMA 4) | 20 | 21 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irale programaren baitan 2021. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko azaroaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-deialdia iragartzen baita Irale programaren baitan 2021. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko azaroaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-deialdia iragartzen baita Irale programaren baitan 2021. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako.

Ebazpena, 2021-2022 ikasturteko Irale Programan lehenengo txandan liberatutako irakasleen ordezkotzagatik dirulaguntzak erabakitzen dituena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2021. urtean IRALE programan irakastordu barneko ikastaroren batean ikasketari gisa aritu diren irakaslerik duten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoei diruz laguntzea da deialdi honen xedea, aipatu irakasleen ordezkatzeek sortutako gastuei aurre egiten laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Ikastetxe pribatuetako irakasleentzako postu kopurua (lehendabiziko txandan):

- Oinarrizko ikastaroak (U), urtebetekoak: 0 (pandemia dela eta)
- Goi-mailako ikastaroak (R), hiruhilabetekoak: 0 (pandemia dela eta)

Ikastetxe pribatuetako irakasleentzako postu kopurua (bigarren txandan):

- Oinarrizko ikastaroak (U), urtebetekoak: 20
- Goi-mailako ikastaroak (R), hiruhilabetekoak: 26

Aurrekontuaren gauzatzea:

Aurrekontua: 1.433.000,00 €

Aurrekontuaren gauzatzea: 570.069,52 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diruz lagundutako liberazio kopurua | - | 46 |
| Diruz lagundutako ikastetxe kopurua | - | 29 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Nolega Deialdi Bateratua 2021-22** |

2.- Araua

| |
|---|
| Agindua, 2021eko abuztuaren 31koa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuetako giroa euskalduntzeko 2021-2022 ikasturterako laguntza-deialdia zabaltzen duena. (EHAA, 2021/09/09). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko abuztuaren 31koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira itunpeko ikastetxe pribatuetako giroa euskalduntzeko 2021-2022 ikasturterako laguntzak.<br>NOLEGA DEIALDIA 2021-2022. Ebazpena |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2013-2014 ikasturtean ekimen ezberdinen bidez euskararen erabilera bultzatzeko asmoz dirulaguntza deialdi bakarra argitaratu zuen sailak: NOLEGA deialdi bateratua hain zuzen ere. Gainera, urteetako ibiliak erakutsi digu ikastetxeek, hainbat kasutan, ekimen horiek batera antolatzen zituztela lehendik ere.

NOLEGA DEIALDI BATERATUA 2021-22 deialdi berri honek jarduera hauek begiesten ditu:

a) Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatu eta eskola-giroa euskaldundu asmoz egiten diren saio-jarduerak: eskola Antzerkigintza, Bertso-lanketa, Kantagintza, Irratigintza, bestelako ahozko lanketa digitalak edota Kontalaritza.
b) Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak:
    - Ikastetxe barruan arlo akademikotik at euskaraz bizitzeko helburuarekin prestatutako jarduerak.
    - Guraso, langile ez-irakasle edota irakasleentzat antolatutako berariazko jarduerak, beti ere ikasleen erabilera areagotzea dutenean helburu.
    - Erabilera areagotzearekin lotutako ikasleen antolamenduzko jarduerak: hizkuntza paisaia; liburutegia; idatzizko arauak…
c) Euskal giro batean bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldi-irteerak.
d) Kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea helburu duten ikastetxeen arteko truke-irteerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021-22 ikasturterako 190.000 euroko aurrekontua egon da itunpeko ikastetxeentzat.

Deialdiaren arabera, ordainketa bakarra egiten zaie urtero eskolei, kurtso hasieran, ebazpenean adierazten den diru-kopuruarekin.

Diru-kopuru hori guztia erabiltzen da eskola guztien artean banatzen delako, eta guztiei, lortutako puntuazioa kontuan hartuta, tokatzen zaiena ematen zaie.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspen | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle kopurua: | | |
| Ahozko adierazmena | 93.646 | 105.115 |
| Eskolaz kanpoko jarduerak - IKE | 276.974 | 267.948 |
| Finkatzeko egonaldiak - EGE | 19.444 | 12.908 |
| Eskola-trukea - IKABIL | 423 | 370 |
| Ikastetxe kopurua: | | |
| Ahozko adierazm | 162 | 168 |
| Eskolaz kanpoko jarduerak - IKE | 160 | 159 |
| Finkatzeko egonaldiak - EGE | 108 | 82 |
| Eskola-trukea - IKABIL | 8 | 6 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itunpeko ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko proiektuetarako deialdia (Ulibarri)**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko martxoaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, ULIBARRI programak itunpeko ikastetxeentzat 2021-2022 ikasturtean izango dituen gehienezko diru-baliabideak, programan sartzeko eta jarraitzeko baldintzak eta ikastetxe bakoitzak programarako izango dituen dedikazio-orduak zehazten dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko martxoaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, hezkuntza-ituna duten ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena, Ulibarri 2021-2022 Programan jarraitzeko edo sartzeko.

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita zein itunpeko ikastetxek jarraituko duten Ulibarri programan, zeintzuk sartuko diren 2021-2022 ikasturtean, zein ordu-kopuru dagokien, eta zein itunpeko ikastetxek utzi duten programa.

Ulibarri Programa 2021-2022. Berriztapenak.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Hizkuntza Normalizazioko Proiektuen garapenean partaide diren itunpeko ikastetxeak eta herri ikastetxeak biltzen ditu Ulibarri programak. Ikastetxe hauetan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea dira helbururik nagusienak.

Ulibarri programak eta bertan arituko diren itunpeko ikastetxeek izango dituzten baliabideak finkatzen ditu agindu honek, baita programan sarbidea eskatu nahi duten ikastetxeentzako prozedura eta baloratzeko irizpideak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021ean ezarpen hauek egin ziren:

- 245.000 eurokoa 2021-22 ikasturteko hasierako ordainketa egiteko.
- Deialdia gauzatzeko, 980.000 euroko aurrekontua 2021-22 ikasturteko bigarren ordainketa egiteko.

Behin esleipenak egin eta gero, ikastetxe bakoitzari dagokiona bi zatitan ordaintzen zaie: ikasturte hasieran, ebazpena atera eta gero, laguntzaren %20, eta ikasturtearen bukaeran, ikasturteko ekimenen urteko memoria eman eta gero, gainerako %80. (Deialdiak berak dio horrela egin behar dela).

| |
|---|
| Hizkuntza Normalizazioko ULIBARRI proiektuak eman dituen emaitzak honakoak dira parte hartzaileak direla eta:<br>• 9.145 irakasle itunpeko ikastetxeetan<br>• 174 itunpeko ikastetxe<br>• 116.859 ikasle itunpeko ikastetxeetan |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Itunpeko ikastetxeak | 174 | 174 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzak**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita musika-ikastegi pribatuei eta musikako zentro baimendu profesionalei dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araudia, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita musika-ikastegi pribatuei eta musikako zentro baimendu profesionalei dirulaguntzak emateko.

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuei 2021eko dirulaguntzak ematen baitzaizkie, Musika-ikastegi pribatuetarako eta musikako zentro baimendu profesionaletarako dirulaguntzen deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 27ko Aginduari jarraituz.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak araututako titulartasun pribatuko musika-eskoletarako eta abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak araututako zentro baimenduetarako dirulaguntzen deialdia egitea, 2020-2021 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira 46 parte-hartzaile izan dira musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuetarako deialdian (Horietako bati ukatu zaio dirulaguntza), eta bi dirulaguntza lerro izan ditu:

a) %25eko edo hortik gorako udal-finantzaketa duten zentroetarako dirulaguntza-lerroa: 25 ikastetxek parte hartu dute.
b) Udal-finantziaziorik gabeko zentroetarako dirulaguntza-lerroa: 21 ikastetxek parte hartu dute, baina 20ri ez zaie eman dirulaguntza.

Dirulaguntza jaso duten 45 ikastetxe pribatuek 11.740 ikasle izan dituzte guztira, prozesua ebazten laguntzen duen aplikazio informatikoak ematen dituen datuen arabera: 11.333 ikasle ez-arautuan eta 407 ikasle, arautuan.

Irakasle kopuruari dagokionez, 604 irakasle izan dira. Irakasleak ez diren langileei dagokienez, 67 izan dira.

Udal-finantzaketa duten zentroen artean, 7.467,82 ordu finantzatu dira (243,64557 euro orduko), eta udal-finantziaziorik gabeko zentroen artean, 2.617,63 ordu (106,0842 euro orduko).

Udal-finantzaketa %25ekoa edo handiagoa duten zentroek 7.821.681,52 euroko aurrekontuak aurkeztu zituzten. Deialdia arautzen duen Aginduaren III. baremoan adierazitako zuzenketa-irizpidea aplikatu

| |
|---|
| ondoren (irakasle ez diren langileen, ekipamenduaren eta funtzionamenduaren gastuen batura aurrekontu osoaren %25 izango da, gehienez ere), aurrekontuen guztizkoa 7.741.926,73 euro izan zen.<br><br>Guztira 1.811.700 euroko laguntzak eman ziren. (2021eko abenduaren 2ko Ebazpena).<br><br>Batez besteko finantzaketa %23,40koa izan zen, baina bi zentrok soilik jaso dute aurrekontuaren %33ko laguntza.<br><br>Udal-finantzaketarik ez duten edo %25etik beherako finantzaketa duten zentroek 3.453.023,53 euroko aurrekontuak aurkeztu zituzten. Deialdia arautzen duen Aginduaren III. baremoan adierazitako zuzenketa-irizpidea aplikatu ondoren (irakasle ez diren langileen, ekipamenduaren eta funtzionamenduaren gastuen batura aurrekontu osoaren %25 izango da gehienez), aurrekontuen guztizkoa 3.195.393,99 €izan zen.<br><br>Guztira, 277.689 €-ko laguntzak eman ziren. (2021eko abenduaren 2ko Ebazpena).<br><br>Batez besteko finantzaketa %8,69koa izan zen, eta zentro batean ere ez da laguntza % 25era iritsi |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| **Adierazlea** | **Aurreikuspena** | **Emaitza** |
|---|---|---|
| Zentro kopurua | 90 | 45 |
| Irakasleak | 1567 | 604 |
| Ez Irakasleak | 200 | 67 |
| Ikasle ofizialak | 36.637 | 11.740 |
| Zentro pribatuen batezbesteko finantziazioa (udal-finantzaketa duten eta ez duten) | | %19,10 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2021-22 ikasturterako laguntzak, 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzat**

2.- Araua

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena (EHAA, 249. zk., 2002ko abenduaren 31).

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan (EHAA, 222. zk., 2004ko azaroaren 19a).

AGINDUA, 2021eko azaroaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2021-2022 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioei (EHAA, 257. zk., 2021eko abenduaren 27a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena.

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

AGINDUA, 2021eko azaroaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2021-2022 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte bitarteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioei.

Zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako dirulaguntzak (2021-2022).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren helburua da 2021-22 ikasturtean 0-3 urte bitarteko haurrentzako udal-haur-eskolen kostuak murriztea eta egungo eskaintza sendotzea eta udal horiek eta Hezkuntza Sailaren arteko hitzarmen baten bidez gauzatuko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

17ko 297/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko eta Haurreskolak Partzuergora bildu ez diren 13 udalek parte hartu dute deialdi honetan.

Laguntza jasotzeko eskubide izan duten plaza-kopurua:

| | |
|---|---|
| 0 urte: | 180 |
| Urte 1: | 505 |
| 2 urte: | 362 |
| Guztira: | 1.047 |

Deialdiaren zenbatekoa 3.500.000 eurokoa izan zen. Ebazpena 3.204.535,17 eurokoa izan zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopurua | 13 | 13 |
| Ikasleen kopurua | 1.200 | 1.047 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2021-22 ikasturterako laguntzak, 0 eta 3 urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat**

2.- Araua

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena EHAA, 249. zk., 2002ko abenduaren 31a).

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan (EHAA, 222. zk., 2004ko azaroaren 19a).

AGINDUA, 2021eko irailaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2021-2022 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat (EHAA, 227. zk., 2021eko azaroaren 16a).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena.

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulu batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

AGINDUA, 2021eko irailaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2021-2022 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat.

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena, haur-eskola pribatuei 2021-2022ko ikasturterako emandako dirulaguntzak jakinarazten dituena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzak emango dira 0 eta 3u urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko eskolei eusten laguntzeko, familien kuotak gutxitu eta homogeneizatzeko, familia eta lana uztartzeko zerbitzu bat eskaintzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, dagoen eskaintza sendotu nahi da, eta, beharrezkotzat joz gero, zabaldu, beti ere abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren

| |
|---|
| hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen plangintza-irizpideekin, Familia Planak adierazitakoa betez. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2022ko martxoaren 11ko ebazpenak laguntzak ematen ditu titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko 272 ikastetxeei: 34 Araban, 145 Bizkaian eta 93 Gipuzkoan.

Laguntza jasotzeko eskubide izan duten plaza-kopurua:

0 urte: 1.331

Urte 1: 3.563

2 urte: 6.225

Guztira: 11.119

Deialdiaren zenbatekoa 24.595.000,00 €koa izan zen. Zenbateko horren arabera ebatzi zen, beharrezkoak izango ziren 25.039.949,38 euroo zenbatekoa %98,22an hainbanatu ondoren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe kopurua | 273 | 272 |
| Ikasleen kopurua | 11.000 | 11.119 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak hezkuntza sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Helburua: ijito ikasleentzako hezkuntza-jarduerak garatzea eskola-esparruan** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021ko irailaren 1ekoa, Hezkuntzako Sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten bai¬tzaie Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2021-2022 ikasturtean (IE2. Hezkuntza Inklusiboa eta Aniztasunaren Arreta). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko irailaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2021-2022 ikasturtean (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta).<br><br>EBAZPENA, 2021eko azaroaren 26koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, 2021-2022 ikasturtean eskola-eremuan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzen Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak ematen dizkiena. |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lehen Hezkuntza gainditzen duten ijito ikasleen ehunekoa egonkortuta dago EAEko ikasleen batez bestekoaren oso azpitik; Bigarren Hezkuntzan, berriz, gorakadatxoa ikusten da, baina kontuan hartu behar da azken kolektibo horren abiapuntuek eta aurreko erreferentziek hutsaren hurrengo arrakasta erakusten dutela etapa horretan. Ikusten denez, gainera, Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera igarotzeko unea heltzean, ikasle askok era guztietako zailtasunak izaten dituzte ikastetxeetara joateko. Ijito elkarteek egindako lana, guztiek ere ez baitute inplikazio-maila bera, ikastetxeen proposamenen araberakoa da, eta ondoren aipatzen direnen moduko hezkuntza-jarduerak hartzen ditu barnean:

- Gelaren barruko esku-hartzea: ikasleek klaseko martxa jarrai dezaten lagundu; irakasleekin batera jardun lanean heziketa fisiko, musika, plastika eta matematika eskolen garapenean, eta elkarreraginezko taldeetan parte hartzen.
- Ijito ikasleek ikastetxeko jardueratan parte-hartzea bultzatu.
- Tutoreekin lankidetzan aritzea tutoretzan, hainbat tutoretza-saio antolatuta zenbait gai aintzat hartuta.
- Ijito familietara hurbiltzea, ikastetxearekiko harremanak errazte aldera.
- Familiak animatzea ikastetxeko jardueretan parte har dezaten.
- Ijito Herria ikusarazteko ekintzak antolatu ikastetxean: azaroaren 16aren inguruko jaiak (Ijito Herriaren eguna Euskal Autonomia Erkidegoan) eta apirilaren 8aren ingurukoak (Ijito Herriaren

| |
|---|
| nazioarteko eguna), kulturen arteko jarduerak ikastetxean (jaiak, asteak, tailerrak...) edo ikasgelan, eta ijito erreferenteak hurbilaraztea.Jarduerak antolatzea jantokian eta jolas-garaian.<br>- Jarduerak jantoki- eta jolas-denboran antolatzea.<br>- Ikastetxeko proiektuetan lankide: kulturen arteko dinamizazioa, bizikidetzaren behatokia, batzorde mistoak eta ikasteko komunitateak |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Emandako diru-kopuru osoa: 435.890,00 euro. Hiru lurraldeetako aurrekontua agortu da.Araban elkarte batek jaso du dirulaguntza.Bizkaian bi elkartek jaso dute dirulaguntza.Gipuzkoan elkarte batek jaso du dirulaguntza.

Zentro edo ikastetxe bakoitzean, jasotako ebaluazioetan, aurrerapenak ikusten dira ondorengo alderdiotakoren batean:

- Ikastetxe-familia harreman errazagoak
- Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea
- Ijito ikasleen errendimendu akademikoa hobetzea
- Ikasle gehiagok lortzen du eskola-arrakasta.
- Eskoletara joatea hobetzea.
- Puntualitatea hobetzea.
- Lan-ohiturak hobetzea.
- Higiene-ohiturak hobetzea.
- Klaustroak erakundearen lana balioztatzea.
- Familiak gehiago parte hartzea bileretan.
- Familiak talde-jardueretara joatea.
- Ikasleekin eta/edo haien familiekin diharduten zerbitzuen arteko lankidetza handiagoa
- Ijito ikasle gehiagok parte hartzea Bidelagunan
- Ijito kulturaren presentzia handiagoa ikastetxean.
- Ijitoen eta ez-ijitoen arteko elkartze espontaneo gehiago.
- Gatazken konponketa betegarriagoa izatea zerikusia duten alderdientzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Erakundeak | 4 | 4 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak helduen hezkuntzako ikasleen elkarteentzat eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzat** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako Sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak izan ezik (L1 Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak izan ezik (L1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).<br><br>EBAZPENA, 2021eko azaroaren 23koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak emateko dena, alde batera utzita Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko elkarteak. |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| EAEko hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da bertan sartuta dauden gizarteko sektore guztien parte-hartzea eta haien guztien laguntza, ezarrita dituen helburuak lortuko baditu. Heziketa integrala lortzeko, irakaskuntza arautuak behar-beharrezkoa du jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzea. Eta hori parte-hartzearekin bakarrik lortzen da, hala helduen hezkuntzako ikasleenarekin nola adin txikiko ikasleen gurasorenarekin, indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera eratutako elkarteen bitartez. Parte-hartze horrek, ordea, gastu handiak eragiten dizkiete legeak ezarritakoaren arabera eratutako erakunde guztiei, eta, beraz, sistemak berak lagundu egin behar die partaidetza hori gauza dadin. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi honetarako, 500.000,00 euro izendatu ziren. Aurrekontua agortu da. 2021ko deialdian, 472 laguntza eman zitzaizkien erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei eta ikasle-elkarteei. Ikasleen gurasoen eta ikasleen 472 elkarte horietatik, 94 izan ziren Arabako ikasleen gurasoen eta ikasleen elkarteentzat, 227 Bizkaikoentzat, eta 150 Gipuzkoakoentzat. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Elkarteak | 488 | 472 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak unibertsitateaz besteko ikastetxeak euren titularitatearen pean dituzten irakaskuntza-kooperatibentzat**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 18koa, Hezkuntzako Sailburuarena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena (IE 1 Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena (IE 1: Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 23koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibentzako laguntzak emateko dena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Indarreko legeriaren esparruan, kooperatiba-erregimenean eratutako ikastetxeei arreta berezia eskaintzen zaie, gizarte-interesa baitute. Ondorioz, Hezkuntza Sailak arrazoizko ikusten du aurrekontu-mugen barruan laguntzea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz besteko mailetako ikasleentzako hezkuntza-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak abiarazten. Jarduera horiek ikasleen gurasoek antolatuko dituzte, irakaskuntza-kooperatibetan bilduta eta behar den erregistroan hala inskribatuta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021erako zenbatekoa 33.000,00 eurokoa izan zen. Aurrekontua agortu da. 2021eko deialdian, 51 laguntza eman zitzaizkien kooperatibei.Horietatik 6 Arabako Kooperatibentzat izan ziren, 19 Bizkaikoentzat eta 26 Gipuzkoakoentzat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Elkarteak | 48 | 51 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak unibertsitatez besteko ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioentzat** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021ko ekainaren 8koa, Hezkuntzako Sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei bideratutako laguntzen deialdia |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko ekainaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei bideratutako laguntza-deialdia.<br><br>EBAZPENA, 2021eko abenduaren 1ekoa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, zeinaren bidez unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak ematen baitira. |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Sailaren politikan, ikasleen guraso-elkarteen federazioak eta konfederazioak funtsezko elementu dira gurasoen parte-hartzea garatu eta sustatzeko; hain zuzen ere, guraso-elkarteen eskumena eta ekimena iristen ez diren mailetan. Federazioak ikasleen guraso-elkarteen arteko bilgune izaki, eta konfederazioak federazioena, interes berberekin guztiak ere, elkarte horiek bultzatutako proiektuak garatzea garrantzizko elementu bat da Hezkuntza Sailaren hezkuntza-helburuak lortzeko. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2021ean deialdi honetarako, 350.000 euro izendatu ziren, guztira. Aurrekontua agortu da. 2021eko deialdian, 11 laguntza eman zitzaizkien erkidegoko guraso-elkarteen Federazioei eta Konfederazioei. 11 Federazio eta Konfederazio horietatik, 3 izan ziren Arabako Federazio eta Konfederazioentzat, 6 Bizkaikoentzat, eta 2 Gipuzkoakoentzat. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Federazioak eta Konfederazioak | 14 | 11 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeentzat, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko maiatzaren18koa, Hezkuntzako Sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten bai¬tzaie EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeei, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko, 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetarako (L2 Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko maiatzaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzen deialdia egiten duena (IE 1: Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).<br><br>EBAZPENA, 2021eko irailaren 7koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeak hautatzeko dena, hezkidetza, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra modu globalean, sistematikoan eta integratuan lantzeko jarduketa-proiektuak egiteko 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan. |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Genero-indarkeria da sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-ezean oinarritutako sistema baten ondorio larriena. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako harremanen bidezko sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta ikasle guztien garapen pertsonala ahalbidetu, nola neskena, hala mutilena.<br><br>Hezkuntza Sailak eskola-eredu mistotik hezkidetzailera igarotzeko eraldaketa-prozesua sustatu nahi du, genero-indarkeria eta sexismoan oinarritutako indarkeria-adierazpen oro prebenitzen lagunduko duena. Horretarako, “EAE-ko hezkuntza-sistemarako II. hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023” egin du sailak. Hau dugu planaren helburuetako bat: ikastetxeek beren kulturan, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Deialdi honetarako, 100.000 euro izendatu ziren, guztira. Aurrekontua ez da agortu. 2021-22 deialdian 11 itunpeko ikastetxe hautatu ziren, jarduera-proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko, 2021-22 eta 2022-23 ikasturteetan. 22.000 euro esleitu dira, 2.000 euro ikastetxe bakoitzeko. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe itunpekoak | 50 | 11 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntzak** |

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko irailaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak iragartzen baitira, ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak garatzeko eta ikasle hasi berrien hizkuntza-errefortzuko programak garatzeko (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunerako arreta)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deia egiten da ikasle etorkinentzako kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle etorri berrien hizkuntza indartzeko programak garatzeko (L2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko irailaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak iragartzen baitira, ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak garatzeko eta ikasle hasi berrien hizkuntza-errefortzuko programak garatzeko.

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/10/2105048e.pdf

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 15ekoa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena. Honen bidez, ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko 2020-2021 ikasturteko deialdia ebazten da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dealdi bakoitzaren bidez sustatu nahi da Ikastetxeetan kulturartekotasunaren ikuspegiaren koordinatzea, eta ikasle sartu berrien –EAEko hizkuntza ofizialak jakiteari dagokionez komunikatzeko zailtasunak dituztenen– artean hizkuntza indartzeko programak gauzatzea, betiere 2020-21 eta 2021-22 ikasturtetan zehar beharrezkoa bada hizkuntza indartzeko plan bat.

Honako hauek lagun daitezke diruz:

a) Linea bateko edo gehiagoko lehen hezkuntzako edo/eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako hezkuntza-itunen ikastetxe titularretan, kultuartekotasuna sustatzeko programak prestatu, zuzendu eta kudeatzeko burututako jarduerak; nolanahi ere, eskabideak egiteko epea amaitzen denean 6 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleen matrikulan, etorkinen portzentajea % 17tik gorako bada; kanpoan geratzen direlarik hiru urtetan edo luzaroago baliabide hori erabili dutenak.

b) Berrikitan sartu diren ikasleen hizkuntza indartzeko ekintzekin osatutako jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2020-2021 ikasturteko deialdia emandako diru-kopuru osoa: 1.564.212,3 euro.<br><br>Guztira, ikastetxe bakar batek ere ez zuen diru-laguntzarik jaso eta 112 ikastetxek ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntza jaso zuten.<br><br>Deialdiak 1.698.000 euro jasotzen zituen, eta formularen araberako esleipena 1.995.071,33 eurokoa izan da, hau da, 133.787,7 euroko soberakina sortu da; beraz, ez da ikastetxe bakoitzerako kalkulatutako zenbatekoen murrizketa proportzionalera jo behar izan. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Itunpeko sareko errefortzu kopurua | 118 | 118 |
| Ikastetxearen cultura arteko ikuspegiaren koodinatzaileak | 2.171 | 1.768 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Laguntzak, 2021-22 ikasturtean eskolatze osagarriko programak garatzekoak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe espezifikoetan egiteko diren eskolatze osagarriko programetarako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2021-2022ko ikasturterako (2. ildo estrategikoaren esparruan: eskola inklusiboa eta aniztasunari erantzutea). |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe espezifikoetan egiteko diren eskolatze osagarriko programetarako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2021-2022ko ikasturterako (2. ildo estrategikoaren esparruan: eskola inklusiboa eta aniztasunari erantzutea).<br><br>AGINDUA, 2021eko urriaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2021eko irailaren 7ko Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe espezifikoetan egiteko diren eskolatze osagarriko programetarako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2021-2022ko ikasturterako (2. ildo estrategikoaren esparruan: eskola inklusiboa eta aniztasunari erantzutea).<br><br>EBAZPENA, 2021eko abenduaren 9koa, Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariarena, 2021-2022 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzen deialdia ebazten duena |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Helburua da hezkuntza-erantzuna ematea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan. Eskolatze Osagarriko Programen hartzaileak heziketa-prozesuan berariazko laguntza behar duten ikasleak dira. Izan ere, ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historialean oinarritzen dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta izan behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak. Programa horiek zuzenean ezar ditzake hezkuntza-administrazioak edo, bestela, hezkuntzan esku hartzen duten beste erakunde eta entitateekin lankidetzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak har ditzakete aldi baterako, Hezkuntzari laguntzeko zerbitzuei jarraituz, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean hartutako neurriak nahikoak izan ez badira. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien aurrean erantzuteko bide arrunt eta aparteko guztiak agortu ondoren eta zailtasun sozial bereziak edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei edota ikasleen kolektiboei erantzutearren, berariazko tratamendu bat hartu ahal izango da aparteko izaeraz, hain zuzen 2021ean hamabost urte arteetako betetako ikasleei zuzendutako eskolatze-programa osagarrien bidez. Segida ematen zaio horrela sailaren jarduerari. Hartara, 2021-22 ikasturtean, 19 talderentzat egin zen laguntza-deia, 1.212.000 euroko guztizko kopuruarekin. Gehieneko diru kopurua proiektuko 63.750 euro izan zen. Programa horiek oso emaitza onak eduki dituzte, aurreko deialdien memorietatik ondorioztatzen denez. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Onuradun proeiktuak | 19 | 19 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia egiten baita, ikasle horiek dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleituta itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako eskola-garraioko banakako esleipenen deialdia egiten baita, ikasle horiek dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleituta itundutako ikastetxe publiko edo pribatuan eskolatuta badaude eta sailaren eskola-garraioa erabili ezin badute.

Ebazpena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da eskola-garraioa finantzatzea desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, arrazoi desberdinengatik ezin baitute erabili Hezkuntza Sailak antolatzen duen garraioa.

Kontuan izan behar da laguntza hauen onuradun diren ikasle-motak, askotan, ingurune eta baliabide profesional espezializatuak behar dituela, beren behar espezifikoetara egokituak, eta horrek, batzuetan, beren bizilekuari dagokion eskola-barrutian ez dauden ikastetxeetan (publikoetan edo itunpekoetan) eskolatzera behartzen ditu, eta, beraz, sailaren garraioaren antolamenduan sartuta ez dauden ibilbideak egiten dituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021-22 deialdiari dagokionez, 2022ko apirilaren 4ko datuekin:

1. Ikasle onuradunen banaketa eta esleipena lurraldeen eta sarearen arabera

| 2021-2022 | Ikastetxe publikoak | | Itunpeko ikastetxeak | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbatekoa | Ikasleak | Zenbatekoa | Ikasleak |
| Araba/Álava | 306.263,06 | 60 | 55.916,80 | 8 |
| Bizkaia | 743.691,44 | 250 | 1.578.538,33 | 389 |
| Gipuzkoa | 324.817,76 | 148 | 1.016.897,01 | 211 |
| **TOTAL** | **1.374.772,26** | **458** | **2.651.352,14** | **608** |

2. Ikasleen banaketa, lurraldearen eta ikastetxe-motaren arabera

| 2021-2022 | IKASLEAK | IKASTETXEAK | | |
|---|---|---|---|---|
| | | PUBLIKOAK | ITUNPEKOAK | GUZTIRA |
| Araba/Álava | 68 | 20 | 5 | 25 |
| Bizkaia | 639 | 72 | 20 | 92 |
| Gipuzkoa | 359 | 37 | 12 | 49 |
| **TOTAL** | **1.066** | **129** | **37** | **166** |

3. Gastuaren banaketa eta ikasle onuradunen kopurua hezkuntza-mailaren arabera

| NIVEL EDUCATIVO | ALUMNADO | IMPORTE | % |
|---|---|---|---|
| Haur hezkuntza | 17 | 51.869,10 | 1,29% |
| Lehen hezkuntza | 45 | 88.873,94 | 2,21% |
| HPB haur hezkuntza | 45 | 230.315,74 | 5,72% |
| HPB lehen hezkuntza | 286 | 1.542.895,88 | 38,32% |
| DBH | 48 | 140.254,01 | 3,48% |
| Batxillergoa | 6 | 14.098,97 | 0,35% |
| ZIG | 296 | 539.636,98 | 13,40% |
| Erdi mailako LH | 8 | 15.827,11 | 0,39% |
| Goi mailako LH | 5 | 25.615,20 | 0,64% |
| HPB Bigarren hezkuntza | 286 | 1.358.066,58 | 33,73% |
| Oinarrizko LH | 24 | 18.670,89 | 0,46% |
| **GUZTIRA** | **1.066** | **4.026.124,40** | |

4. Aurrekontua gauzatzea eta gizartean izango duen eragina.

Hasieran aurrekontuan jasotakoa baino zenbateko handiagoa gauzatu da, beharrak aurreikusitakoak baino handiagoak izan baitira. Hori horrela izan da, hezkuntza-premia bereziak zituzten ikasleentzako gela egonkor berri guztiak ez baitziren kontuan hartu, eta 2021-22 ikasturtearen hasieran ireki ziren. Deialdiak eragin sozial esanguratsua du familien ekonomian; izan ere, haien seme-alabek beren hezkuntza-premia berezietara (askotan, gela egonkorrak edo zereginak ikasteko gelak) egokitutako ikastetxeetara joan behar dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikasle-kopurua | 974 | 1.066 |
| Ikastetxe publikoetako ikasleak: | 423 | 458 |
| Itunpeko ikastetxeetako ikasleak: | 551 | 608 |
| Ikastetxe kopurua: | 151 | 166 |
| Ikastetxe publikoak: | 122 | 129 |
| Itunpeko ikastetxeak: | 29 | 37 |
| Gastua (€) | 3.773.000,00 | 4.026.124,40 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide heziketako heziketa zikloak eskaintza partzialean irakasteko**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkide¬goko lanbide-heziketako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeei dei egiten diena dirulaguntza eska dezaten 2021-2022 ikasturtean heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeei dei egiten diena dirulaguntza eska dezaten 2021-2022 ikasturtean heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitatean emateko.

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 31koa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko dirulaguntzak emateko erabakia hartzeko dena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide-heziketako heziketa-zikloak emateko, eskaintza partzialaren modalitatean. 2021-22 deialdirako aurreikusitako helburuak honela zehaztu ziren: ikastetxe pribatuetan heziketa-zikloetako 80 modulu ematea eskaintza partzialaren modalitatean, modulu horietan 1.150 matrikulazio izatea eta diru-laguntzaren estaldura maila (emandako moduluak/eskatutako moduluak) %41ekoa izatea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdi honen bidez, diru-laguntzak eman zitzaizkien 6 itunpeko ikastetxe pribaturi, industria lanbide-arloko heziketa-zikloei dagozkien 34 modulu eskaintza partzialean ematea finantzatzeko, eta beste bi ikastetxeri, zerbitzuen eta besteen lanbide-esparruko heziketa-zikloei dagozkien 13 modulu eskaintza partzialean ematea finantzatzeko. Industria lanbide-arloan finantzatutako heziketa-zikloak honako hauek dira: instalazioa eta Mantentze-lanak, Energia eta Ura, Zura, Altzarigintza eta Kortxoa, eta Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza. Bestalde, zerbitzuen eta bestelakoen lanbide-esparruan finantzatutako heziketa-zikloak Estetika eta Edertasuna eta Osasuna arloetakoak dira. Laneratze-indize handiena duten lanbide-arloen artean daude lanbide-familia horiek.

Eskaintza partzialeko modalitatean 103 lanbide-modulu eman dira guztira horretarako baimena duten itunpeko ikastetxe pribatuetan, eta deialdi honen bidez 47 modulu lagundu dira diruz. 1.010 matrikulazio egin dira itunpeko ikastetxe pribatuetan, eta horietatik 856 matrikulatu dira deialdi honetan diruz lagundutako moduluetan. Estaldura-maila (emandako moduluak/eskatutako moduluak) %47,57koa izan da itunpeko

zentro pribatuetan. Beraz, diru-laguntzen plan estrategikoaren hiru adierazleetako bitan bete da aurrekontu-programan jasotako aurreikuspena. Hirugarren adierazle horretan, aurreikuspena % 88an bete da.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidurari dagokionez, 526.000 €-koa izan da, eta horietatik 236.700 euro 2021erako ordainketa-kredituei zegozkien, eta 289.300 €, berriz, 2022rako konpromiso-kredituei. Deialdia 523.320 €-tan ebatzi zen (deialdiaren aurrekontu-zuzkiduraren % 99,49). Deialdiaren lehen ordainketa ( % 45), 2021ean gauzatua, 235.494 eurokoa izan zen. Bigarren ordainketa gainerako zenbatekoarekin, 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura egingo da.

Deialdi honen eragin soziala honetan datza: eskaintza partzialeko modalitate horren bidez malgutu egiten dira helduentzako berariazko lanbide-heziketa egiteko baldintzak, eta, horrela, haien lanbide-kualifikazioak hobetzen dira eta, hala badagokio, dagokien titulua lortzen dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Itunpeko ikastetxe pribatuetan eskainitako modulu kopurua. | 80 | 103 |
| Matrikula kopurua itunpeko ikastetxe pribatuetan. | 1.150 | 1.010 |
| (%) Estaldura-maila (emandako moduluak/eskatutako moduluak) itunpeko ikastetxe pribatuetan. | %41 | %47,57 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **lanbide-Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzak** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko azaroaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez makineria eta/ edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzen deialdia egiten baita, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko azaroaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko dirulaguntzen deialdia egiten baita, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan.<br><br>EBAZPENA, 2021eko abenduaren 27koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinen bidez esleitzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2021eko azaroaren 9ko Aginduan deitutako dirulaguntzak, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko. |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Agindu honen xedea da makineria eta/edo ekipamendua erostetik edo errentan hartzetik eta makineria eta/edo ekipamendu hori instalatzetik eratorritako gastuak finantzatzera bideratutako dirulaguntzak emateko prozeduraren deialdia egitea, bi jarduketa-eremuren arabera:<br><br>– 1. eremua: aurrez aurreko modalitate osoko Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzat, heziketa-ziklo bakoitzerako ezarritako makineria eta/edo ekipa¬mendu espezifikoa eguneratzeko eta ikaskuntza-metodologia eta -tresna aurreratuak ezartzea ahalbidetuko duten espazioak egokitzeko.<br>– 2. eremua: aurrez aurreko modalitate osoko Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatu integratuentzat, 4.0 ingurunearen erronkei erantzuteko eta lanbide-hezi¬ketako eraldaketa digitalaren eta jasangarritasunaren planak abiatzeko. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| Lehenengo adierazlean, azken emaitza, bi jarduera-eremuak kontuan hartuta, % 72koa izan da. Lehenengo jardun-eremuan 79 pertsona fisiko edo juridiko izan dira, 85 ikastetxe pribaturen titularrak, 2020-21 ikasturtean Lanbide Heziketako zikloren bat modalitate presentzial osoan ematen dutenak eta diru-laguntza eska zezaketenak. 79tik 53k eskatu dute 1. eremurako diru-laguntza, hau da, %67k. 2. eremuari dagokionez, |

20 pertsona fisikok edo juridikok eskatu ahal izan dute diru-laguntza, eta 19 eskatzailek eskatu dute, hau da, % 95ek.

1. eremuan, lehenengo aldiz, lanbide-arlo guztietako heziketa-ziklo guztiek jaso zezaketen diru-laguntza. Horri esker, 2020-21 ikasturtean modalitate presentzial osoan LH ematen duen ikastetxe pribatu itundu baten titular diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek eskatu ahal izan zuten diru-laguntza, eta azkenean onuradun izan zitezkeen ikastetxeen % 67k eskatu zuten. Hori dela eta, adierazle horren emaitza erreala hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa da, baina parte-hartze oso handia islatzen du, 2.eremuaren kasuan % 95ekoa izatera iritsi delarik. Horrek erakusten du itunpeko ikastetxe pribatuek interes handia dutela diru-laguntza hau lortzeko.

Hurrengo bi adierazleei dagokienez, ikus dezakegu bi adierazleetan zentroek emandako datu errealak erabilitako magnitudeak baino zertxobait txikiagoak izan direla. Izan ere, lehen esan bezala, lehen aldiz ireki da LHko zikloren bat ematen duten ikastetxe guztiek 1. eremuko laguntza eskatzeko aukera. Egoera hori ez da aurreikusi hasieran, eta parte-hartzearen ehunekoa zertxobait txikiagoa izatea eragin du. Ondorio gisa, esan dezakegu diruz lagundutako ekipamenduak erabili dituzten zikloen ehunekoa, horiek erabil zitzaketen ziklo guztiak kontuan hartuta, %63 izan dela. Era berean, diruz lagundutako ekipamenduen onuradun izan zitezkeen ikasle potentzial guztien artean, %65 izan dira onuradun. Adierazle horietan lortutako datu errealak aurreikusitakoak baino pixka bat txikiagoak izan badira ere, lortutako emaitzak onak direla uste da, eta 2022ko deialdian emaitza horiek handitzea espero da.

Dirulaguntzaren estaldura-mailari dagokionez, honek, bi jardun-eremuetarako emandako eta eskatutako guztizkoaren % 46,21 estali du. 1. eremuaren estaldura-maila %37,77koa izan da, eta 2. eremuarena, berriz, %55,28koa. Beraz, estaldura-maila asko hurbildu da 2021eko Plan Estrategikoan aurreikusitakora.

Deialdi honen xede diren makinak eta/edo ekipamenduak diruz laguntzeko zenbateko osoa bi milioi bederatziehun eta hamazortzi mila ehun eta sei (2.918.106) eurokoa izan da. Egindako murrizketen ondoren, azken exekuzioa 2.918.004,03 €izan da (dotazio osoaren %99,99).

Dirulaguntzak aukera ematen die ikastetxe onuradunei, batetik, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatu berriarekin bat datozen ikaskuntza-inguruneak, -tresnak eta -metodologiak ezartzeko behar duten ekipamendu eguneratua eskuratzeko, eta, bestetik, ikaskuntzaren, nazioartekotzearen eta etengabeko hobekuntzaren eremu estrategikoei lotutako proiektuak garatzeko, horrela Euskal Autonomia Erkidegoko lehiakortasuna eta enplegagarritasuna hobetuz. Bestalde, deialdi honi esker, LHko ikastetxe itunduek erantzun ahal izan diete gizartearen kontzeptua neurri handi batean teknologian, konektibitatean eta digitalizazioan oinarritutako eredu baterantz eraldatzeak eskatzen dituen egungo beharrei, 4.0 inguruneetako teknologia aurreratuak sartzeko aukera eman dien makineriaren eta ekipamenduaren erosketari edo errentamenduari esker.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Dirulaguntza eska dezaketen ikastetxeen artean, eskaera egin dutenen % | %83 | %72 |
| Dirulaguntza jasotzeko aukera izanik, hori lortzen duten zikloen % | %82 | %63 |
| Dirulaguntza jasotzeko aukera duten heziketa-zikloetan matrikulatutako ikasleen artean, honen onuradun direnen % | %84 | %65 |
| (%) estaldura-maila (emandakoa/eskatutakoa) | %48 | %46 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Dirulaguntzak Lanbide-Heziketa Dualeko programak garatzeko ikas-ekinezko erregimenean, lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2021-2022 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autono¬mia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntzen deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2021-2022 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntzen deialdia.

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 10ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena; honen bidez, dirulaguntzak ematen dira 2021-2022 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da dirulaguntzak ematea lanbide-heziketako titulu bat lortzera bideratutako ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko ikasleen tutoretza-zereginak garatzearekin lotutako gastuak finantzatzeko, 2021-22 ikasturtean prestakuntza-zentroaren eta enpresaren artean ikas-ekinezko erregimenean garatutako ikaskuntza-prozesu baten bidez, eta Lanbide Heziketako sailburuordearen ebazpen bidez baimenduta.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Modalitate duala egin dezaketen ikasleak dituzten 85 itunpeko ikastetxetatik 51k ikasleak dituzte modalitate horretan. Deialdi honen bidez 51 ikastetxeek jaso dute diru-laguntza, eta diruz lagundutako 51 ikastetxe horietan 750 ikaslek egin dituzte ikas-ekinezko erregimeneko prestakuntza dualeko proiektuak Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko, 18 lanbide-arlotan. Horrek esan nahi du 2021-22 ikasturtean modalitate duala ikasten ari diren ikasleak dituzten itunpeko ikastetxeen % 100ek eskatu eta jaso dutela diru-laguntza, eta, era berean, diru-laguntzaren estaldura-maila % 100ekoa izan dela (emandako planak/eskatutako planak). Aldi berean, horrek esan nahi du zikloa modalitate dualean egiten ari diren ikasleen % 100ari eragin diola diru-laguntzak.

Bestalde, industria-eremuan ikasleak modalitate dualean ikasten ari diren zikloen ehunekoa %63 da, eta zerbitzu-esparruko zikloena, berriz, %60. Zikloa modalitate dualean egiten duten ikasleek % 80ko laneratzea dute zikloa amaitzean.

Deialdi honetara, guztira, 627.900 euro bideratu dira, eta 627.900 eurotan ebatzi da (deialdi osoaren % 100). Deialdiaren lehen ordainketa ( %65), 2021ean gauzatua, 408.135 eurokoa izan zen. Bigarren ordainketa, gainerakoa (219.765 euro), 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura egingo da, erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak benetan egin direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Horren erabilgarritasuna eta gizarte-eragina prestakuntza arautuko ikasleengan eta etengabeko prestakuntzako eta lanerako prestakuntzako programetan parte hartzen duten pertsonengan oinarritzen da, ikasle horiek lan-merkatuan errazago sar daitezen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Zikloa modalitate dualean egiten ari diren ikasleak dituzten industria-arloko lanbide-arloen ehunekoa | %60 | %63 |
| Zikloa modalitate dualean egiten ari diren ikasleak dituzten zerbitzuen arloko lanbide-zikloen ehunekoa | %50 | %60 |
| Zikloa amaitzen denean, zikloa modalitate dualean egiten duten ikasleen laneratzea | %70 | %80 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Enpresako egonaldi-beketarako deialdia, lantokiko prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat, 2021-2022 ikasturtean**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita enpresa-egonaldietarako beken deialdia, 2021-2022 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita enpresa-egonaldietarako beken deialdia, 2021-2022 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat.

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 9koa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baitira 2021eko irailaren 13ko Aginduak arautako dirulaguntzak, enpresako egonaldi-beketarako deialdia egiten duena, lantokiko prestakuntzako modulua irailetik martxora bitartean egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat, 2021-2022 ikasturtean.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea da enpresa-egonaldietarako beken deialdia egitea, 2021-22 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten eta 2022ko martxoan ebaluatuko diren lanbide-heziketako ikasleentzat.

Diruz lagunduko den enpresa-egonaldiak hilabetetik hiru hilera bitartean iraungo du, eta lantokiko prestakuntzako modulua egin ondoren gauzatuko da.

Deialdi honetan esleitzeko egon den beka kopurua 493 beka izan da, eta onuradun bakoitzak 1.800 euro garbi jaso ditu. Beka bakoitza Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorraren kotizazio-araubidearen mende dago.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deitutako 493 beketatik 383 eman ziren, Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren 2021eko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez. Guztira, 493 eskaera jaso ziren, eta horietatik 11ri ezezkoa eman zitzaien. Aurreko deialdian baino 11 beka gutxiago eman dira. Enplegu Planean zuzkidura ekonomikoari eusten bazaio, lanean jarraituko da onuradun izan daitekeen kolektiboa handitzeko. Zikloa amaitzean beka baliatu duten ikasleen laneratzeari dagokionez, % 50eko aurreikuspena egin zen. Oraindik ezin da adierazle honen benetako datua eman, ikasle batzuek oraindik ez baitute enpresako egonaldia amaitu.

| |
|---|
| Aurrekontua gauzatzeari dagokionez, beka osoaren % 80 ordaindu da (1.440 euro beka bakoitzeko) lantokiko prestakuntza amaitu ondoren, 433.800 euro 2021eko aurrekontuaren kontura, eta 13.360 euro 2022ko aurrekontuaren kontura. Bekaren gainerako % 20 (360 euro beka bakoitzeko) eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa, 2022ko aurrekontuaren kontura gauzatuko da.<br><br>Programaren erabilgarritasunari eta gizarte-eraginari dagokienez, belaunaldi berriek gaitasun, jarrera eta esperientzia sorta zabala eskuratu beharko dute, bai ikastetxean, bai lantokian, eta gizarte-erronkaren bidez sustatzen da gaitasun horien garapena, pentsamendu kritikoa eta eraikitzailea sustatuz. Enpresako praktika funtsezko faktorea da barneratze horretarako, eta, testuinguru horretan, Lantokiko Prestakuntza modulua espazio bat da, non konpetentzia profesionalak eta giza konpetentziak batzen, garatzen eta baliozkotzen diren. Horregatik, lanpostu berrietara arrakastaz iristeko, etengabe egokitzen egotea ahalbidetzen dieten gaitasunak izan beharko dituzte pertsonek. Egokitzeko, autokudeatzeko eta denbora laburrean ezagutza berriak etengabe eskuratzeko gaitasunek enpresako egonaldia funtsezko eta ezinbesteko faktore bihurtzen dute. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Deitutako beken kopurua | 493 | 383 |
| Zikloa amaitzen denean, beka baliatu duten ikasleen laneratzea (%) | %50 | |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **Irakasleak prestatzeko jarduerak IKPP** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko ekainaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, 2021-2022 ikasturtean irakasleak prestatzeko jarduerak egin ditzaten. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, 2021-2022 ikasturtean irakasleak prestatzeko jarduerak egin ditzaten.

EBAZPENA, 2021eko irailaren 14koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2021-2022 ikasturtean.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide Heziketako irakasleen etengabeko prestakuntza planek, prestakuntza-proposamenak aurkezten dituzte, non Lanbide Heziketak funtzionamendu egokia izan dezan beharrezkoak diren irakasleen konpetentziak bermatzen diren, eta, bestetik, nahikoa bide irekitzen ditu prestakuntza errazteko, irakasleek beraiek irakaskuntzan jardunez sentitu eta formulatutako eskabideen arabera.

Helburuak:

- Digitalizazioaren eta jasangarritasunaren alorretan ardaztutako prestakuntza-jarduerek lehentasuna izango dute.
- Espezializazio profesionaleko programak, orientazio profesionala, kolaborazio aktiboko metodologiak aplikatzea, baita Steam kultura, aipatutako prozesuetan teknologia aurreratuak erabiltzea eta edozein espezialitatetako irakaslearen ekintzailetzaren kultura indartzen duten ekintzak, baita sormenezkoak ere. gaitasuna, berrikuntza eta pentsamendu eraikitzailea. Era berean, genero ikuspegia txertatzera zuzendutako jarduerak lehentasunezkoak izango dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021-22 deialdirako aurrekontua ere 169.600 eurokoa izan da. eta guztira 162.537,50 euroko zenbatekoarekin ebatzi zen.

2021eko deialdian honako hauek diruz lagundu ziren:

| | |
|---|---|
| Diruz lagundutako zentroak | 23 |
| Proiektuak | 71 |

| | |
|---|---|
| Parte hartzen duten irakasleak | 792 |

Momentu honetan ez ditugu 2021eko deialdiaren behin betiko datuak, finantzatutako proiektu desberdinak oraindik itxi gabe daudelako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Diruz lagundutako zentroak | 25 | 23 |
| Parte hartzaileak | 650 | 792 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza 2021**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko ekainaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2021eko deialdia egiten da.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko ekainaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2021eko deialdia egiten da.

Bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak (2021).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu hau, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren esparruan, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen.

Dekretu horrek arautzen dituen laguntzen bidez, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan Europako lankidetzarako esparruaren helburu estrategikoak lortzen lagunduko duten jarduerak bultzatu nahi dira («ET 2020»). Halaber, bizialdi osoko ikaskuntzaren kultura gauzatzen, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen eta ekitatea, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzen lagundu dute ere bai.

Dekretu horren 4. artikuluak finantzatu ahal izango diren hiru jarduera-mota ezartzen ditu:

a. Prestakuntzako jarduera espezifikoak, aurretiaz identifikatutako eta kuantifikatutako pertsona-multzo baten prestakuntza-arloko beharrizanei erantzuteko diseinatuak eta planifikatuak. Atal horretatik kanpo geratuko dira profesionaltasun-ziurtagiriekin lotutako prestakuntza, enplegurako prestakuntzaren esparruan, eta, ondorioz, Lanbideren deialdien bidez dirulaguntzak lortu ditzaketen jarduerak.

b. 5. artikuluak ezarritako funtzioak garatzen dituzten ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak. Dekretu honek arautzen dituen laguntzen kontura, zonalde bakoitzerako bitartekotza-zerbitzu bakarra finantzatu ahalko da, udalera zein eskualdera mugatua izan zonaldea.

c. Gai hauei buruzko esperimentazio-proiektuak: bereziki kualifikazio txikiko pertsonei zuzendutako eduki irekiko ikaskuntza-gaiak lantzea, prestakuntza-ikaskuntzako metodologia berriak, ezagutzaren belaunaldi arteko transferentzia, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzea edota bizitza osoan egiten den ikaskuntzarekin lotutako beste edozein.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Jarduera-mota bakoitzaren zenbateko erabilgarriak hauek izan dira:

a.- Prestakuntza-jarduera espezifikoak: 235.000,00 euro.

b.- Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 595.000,00 euro.

c.- Esperimentazio-proiektuak: 100.000,00 euro.

Horrela, 2021-2022 deialdirako aurrekontu-konpromisoa 930.000 eurokoa izan zen, eta guztizko zenbatekoarekin ebatzi zen.

2021eko deialdian 22 erakundek aurkeztutako 43 proiektuk lortu zuten dirulaguntza:

Prestakuntzako jarduera espezifikoak 19 proiektu

Ikaskuntzako bitartekotza-zerbitzuak 19 proiektu

Esperimentazio-proiektuak 5 proiektu

Une honetan ez daukagu 2021eko deialdiari buruzko daturik, finantzatutako proiektuak oraindik itxi gabe daude eta.

2020ko deialdiari dagokionez, honako pertsona hauek artatu ziren:

Prestakuntza-jarduera espezifikoak 1.058 pertsona

Ikaskuntzako bitartekotza-zerbitzuak 7.141 pertsona (4.343 modu presentzialean + 2.798 modu ez-presentzialean).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Prestakuntza-proiektuen kopurua | 25 | 19 |
| Prestakuntza-jardueretan artatutako pertsonen kopurua | 600 | 1.058 |
| Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuen kopurua | 15 | 19 |
| Bitartekaritza-zerbitzuetan artatutako pertsonen kopurua | 5.000 | 7.141 |
| Esperimentazio-proiektuen kopurua | 5 | 5 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

| |
|---|
| **ERASMUS + 2021** |

2.- Araua

| |
|---|
| AGINDUA, 2021ko uztailaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena. Horren bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten da Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, ERASMUS+ programaren esparruaren barruan. |

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

| |
|---|
| AGINDUA, 2021eko uztailaren 27koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten da Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, Erasmus+ programaren esparruaren barruan.<br><br>Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko dirulaguntzetarako deialdia, ERASMUS+ programaren esparruaren barruan (2021-2022). |

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

| |
|---|
| Erasmus+ Programa erkidegoko ekintza-programa bat da, eta Lanbide Heziketan eta Heziketan parte hartzen duten pertsona guztien irakaskuntza- ikaskuntza beharrak asetzea du helburu, baita hezkuntza eta prestakuntza hori ematen edo errazten duten erakundeena ere.<br><br>Kontuan izanik erkidegoaren finantzaketa ez dela jarduketaren aurrekontuaren %100era iristen, deialdi honen bidez lortutako diru-laguntzak erkidegoko finantzaketarekin estali gabeko aurrekontuaren ehunekoari aurre egiteko erabiltzen da.<br><br>Mugikortasun hauek kofinantzatzen dira:<br>1. Goi-mailako Lanbide Heziketari dagozkion KA1 proiektuak: ikasle zein irakasleentzako mugikortasuna.<br>2. Goi-mailarekin bat ez datozen gainontzeko Lanbide Heziketako KA1 proiektuak: irakasleen mugikortasuna soilik. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| - 2020-21 ikasturtean aurrekontu-kreditua 650.000 eurokoa zen eta guztiz ebatzi zen.<br>Hala ere, benetako egoerak ez zuen zerikusirik izan aurreikusitakoarekin. Pandemiaren ondorioek horrela iraun zuten, non laguntza eskaerak oso ugariak izan baziren ere, ez zen mugikortasunik egon, eta horrela entitate guztiek eskatutako laguntza eskatzeari uko egin zioten.<br><br>- 2021-22 ikasturtean, aurrekontu-kreditua 700.000 eurokoa da eta bere osotasuna ebazten da.<br>2021eko deialdi honetan, 2020an onartutako eta gauzatu ez diren proiektuen pilaketa dela eta, ikasturte honetan hasitako 2021. urteari dagozkionak gehitzen ari diren kofinantzazio eskaeren eztanda izan da. |

Eskatzen diren proiektu kopurua ezagutzen dugu, baina ez egindako mugikortasun kopurua. Azken datu hau ez da ikasturtea amaitu eta entitate eskatzaileek aurkeztutako txostenak aztertu arte ezagutzen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Ikastetxe publikoak proiektuak | 20 | 61 |
| Itunpeko ikastetxeak proiektuak | 50 | 36 |
| Ikastetxe publikoak mugikortasuna | 520 | ___ |
| Itunpeko ikastetxeak mugikortasuna | 600 | ___ |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Atzerriko hizkuntza indartzeko programa**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko irailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko programentzako 2021-2022 ikasturteko dirulaguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko irailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko programentzako 2021-2022 ikasturteko dirulaguntzak.

Heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak (2021-2022).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hizkuntzak giltzarri dira ikasleen enplegagarritasuna eta mugigarritasuna hobetzeko, enpresek merkatu globalizatuetan jardutea eskatzen dutenez gero.

Azpimarratu da garrantzizkoa dela hizkuntzak ikastea eta herritar guztien hizkuntza-konpetentziak hobetzen laguntzen duten sistemak indartu beharra, eta, bereziki, prestakuntzan diharduten ikasleen kasuan, betiere helburu hartuta Europar dimentsioa, enplegagarritasuna eta mugigarritasuna indartzea.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen atzerriko hizkuntza gaitasunak hobetzera bideratutako ekimen multzo bat sustatzen da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020-21 deialdian 80.000 euroetatik 46.150 euro gauzatu ziren eta emaitza hauek lortu ziren:

10 ikastaro
12 talde
152 ikasle parte-hartzaile

2021-22 deialdiaren ebazpenaren ondoren, hasiera batean esleitutako 100.000 euroko aurrekontuaren 68.075,00 euro gauzatu dira.

Diruz lagundutako proiektuak itxi gabe daudenez, behin betikoak ez badira ere, oraingoz datu hauek dira ditugunak:

10 hizkuntza-ikastaro
17 talde
239 ikasle parte-hartzaile

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Itunpeko Ikastetxeak | 15 | 17 |
| Ikasle parte hartzaileak | 250 | 239 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Berrikuntza eta ekintzailetza proiektuak egiteko dirulaguntza**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko apirilaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten diena 2021-2022 ikasturtean plan hauetan zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETEen Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko apirilaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten diena 2021-2022 ikasturtean plan hauetan zehaztutako estrategiari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETEen Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala.

EBAZPENA, 2021eko abuztuaren 27koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2021eko apirilaren 13ko Aginduan araututako dirulaguntzak, 2021-2022 ikasturtean garatu beharreko berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko Lanbide Heziketako V. Euskal Planean, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integralean, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integralean zehaztutako estrategiarekin bat datozen Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren benetako garapena bultzatzeko, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren aldaketak gidatu behar dituen tresna baita plana, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak itunpeko ikastetxe pribatuei dei egiten die, irakasleen bidez ekintza hauek gauzatu ditzaten: plan horren konpetentziak sendotzeko jarduera eta proiektuetan parte hartzea, ingurune teknologikoki oso aurreratuei erantzuna emateko; Lan bide Heziketak enpresei, bereziki ETEei, laguntza ematea sustatzea, eta enpresei ematen zaien estaldura zabalagoa izan dadin lortzea; Lanbide Heziketatik premia teknologikoen dibertsitateari erantzun sistematiko bat ematea, eta lehentasun teknologikoak eguneratu eta bateratzea Euskadiko berrikuntza-estrategiarekin, tresna sistematikoak ezarriz horretarako.

2021-22 ikasturterako, dirulaguntza behar duten berrikuntza-proiektuak ZTBP Euskadi 2020n estrategikotzat jotako jarduera-ildoen arabera diseinatu behar dira.

| |
|---|
| Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen xede izan daitezkeen proiektuek bat etorri beharko dute Lanbide Heziketako V. Euskal Planean definitutako espezializazio adimenduneko estrategiarekin, bai eta Jaurlaritzaren Ekintzaren Plangintza Estrategikoko ekimenen barruan dauden eta Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin lotuta dauden planekin, digitalizazio jasangarrirako eta sistema adimendunetarako plan integralarekin (euskal hezkuntza-sisteman), eta lehiakortasunerako euskal hilabete berdearen eta trebakuntzarako plan integralarekin ere. |

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

| |
|---|
| 2021-22 deialdirako aurrekontu-konpromisoa 770.000 eurokoa izan zen a, eta 769.999,53 euroan ebatzi zen.<br><br>Lortutako emaitzak hurrengo atalean adierazten dira. |

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Deialdian parte hartzen duten itunpeko ikastetxeen %a | 40% | 37,17% |
| Diru-laguntza lortu duten itunpeko ikastetxeen %a | 70% | 68,96% |
| Dagoeneko garatzen ari den ekimen batera gehitzen direnen %a | 25% | ___ * |
| Diruz lagundutako berrikuntza proiektuen bidez, lortutako produktuen ikastetxe onuradunen kopurua | 60% | ___ * |

* Datu hau jarduerak amaitu eta diru-laguntzaren onuradunek azken memoria aurkeztu ondoren lortuko da.

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Jarduketa-lerroak 2021**

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak iragartzen baitira Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzat, honako hauek ezartzeko eremu estrategikoetarako jarduketa-lerroak gara ditzaten 2021-2022ko ikasturtean: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzak iragartzen baitira Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzat, honako hauek ezartzeko eremu estrategikoetarako jarduketa-lerroak gara ditzaten 2021-2022ko ikasturtean: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana, Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Jasangarrirako eta Sistema Adimendunetarako Plan Integrala, eta Euskal Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako, Pertsonen Gaikuntzarako eta ETE-en Lehiakortasun Jasangarriari laguntzeko Plan Integrala.

Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak (2021-2022). Behin-behineko ebazpena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Urtero, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeentzako laguntzen deialdia egiten da, hezkuntza-sistema hobetzeko jarduera osagarriak gauzatzeko, batez ere honako eremu estrategiko hauei lotuta: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetza aktiboa eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eredu berria.

Deialdiaren helburua itunpeko ikastetxeen parte-hartzea sustatzea da, bertan definitutako jardueretan parte hartzen duten irakasleak finantzatuz, Lanbide Heziketako V. Euskal Plana hedatzen eta bertan zehaztutako eremu estrategiko bakoitzerako helburuak lortzen lagunduz.

Proiektuen eta jardueren ordenaren arteko desberdintasunak: bi aginduek Lanbide Heziketako sistema konbinatuaren erronkei erantzuten diete.

A.- Jarduketa-ildoen agindua

- Berrikuntza metodologikoko proiektuak (Zerbitzuak, TKgune, Urratsbat) Lanbide Heziketako barne-funtzionamenduan.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzak jarduerak proposatzen ditu, eta Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeek horietan parte hartzeko izena ematen dute.

- Garatu beharreko jarduerak zehaztuta daude: metodologiak, enpresentzako zerbitzuak, ekintzailetza, zentroen kudeaketa.

B.- Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuen Agindua

- Ekoizpen-inguruneei lotutako esparru teknologikoko proiektuak.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzak Lanbide Heziketako V. Euskal Planarekin lerrokatutako proiektu batzuk lehenesten ditu, baina horrek ez du esan nahi ikastetxe bakoitzak Lanbide Heziketako Sailburuordetzak lehenetsitakoekin lotuta egon daitezkeen edo ez dauden proiektuak aurkeztu ezin dituenik, betiere Gobernu Ekintzaren Estrategiarekin bat badatoz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2021-22 deialdirako aurrekontu-konpromisoa 2.145.800 eurokoa da, eta 2.145.600 euroko zenbatekoarekin ebatzi zen.

Lortutako emaitzak hurrengo atalean adierazten dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Deialdian parte hartzen duten itunpeko ikastetxeen %a | 50% | 43,58% |
| Dirulaguntza lortzen duten itunpeko ikastetxeen %a | 90% | 93,10% |
| Jardueretan parte hartzen duten irakasleen kopurua | 90 | 152 |
| Produktu transferigarri bat garatu dutenen %a | 70% | ___ * |
| ortutako produktuen ikastetxe onuradunen kopurua | 50 | ___ * |

* Datu hau jarduerak amaitu eta diru-laguntzaren onuradunek azken memoria aurkeztu ondoren lortuko da.

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura ekintzailea**

2.- Araua

Agindua, 2021eko uztailaren 6koa, hezkuntzako sailburuaren, zeinaren bidez deialdi bat egiten baita 2021-2022 ikasturteko lanbide-heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2021eko uztailaren 6koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdi bat egiten baita 2021-2022 ikasturteko lanbide-heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko laguntzak emateko. 2021-2022ko ikasturtean ekintzailetzaren kultura sustatzeko laguntzak Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloren bateko 2. mailan dauden ikasleen artean.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honetan zenbait ekimen bultzatu nahi dira ekintzailetzaren kultura sustatzeko, eta ikasleek enpresa-arloko simulazio-proiektuak egitea da esparru horretako funtsezko jardueretako bat. Ikasketa-tresna horren bitartez, ikasleek zenbait konpetentzia garatzeko aukera dute, eta, modu horretan, profesional onak, enplegagarriak, pertsona aktibo eta ekintzaileak, edo intraekintzaileak izango dira, eta lan-merkatu aldakor eta ezegonkorrari egin ahal izango diote aurre. Era berean, sentsibilizazioa piztu dakieke, autoenplegua ere aukeretako bat izan dadin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurkeztutako proiektuak 15 zentro ezberdinei dagozkie, eta horietatik 14k diru-laguntza jaso dute eta bat baztertua izan da.

2021-22 deialdiak 116.000,00 euroko aurrekontua izan du, eta haren ebazpenak aurrekontu horren %100 hartu du. 7 izan dira laguntzarik gabe geratu diren zentroak, eskuragarri zegoen kreditua agortu delako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

| Adierazlea | Aurreikuspena | Emaitza |
|---|---|---|
| Itunpeko ikastetxeen kopurua | 15 | 15 |
| 2º mailako partehartzaileak | 400 | 915 |

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko bekak**

2.- Araua

AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2020-2021 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako, eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzetarako (2020ko abuztuaren 24ko 165. EHAA).

AGINDUA, 2021eko ekainaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako, eta desgaitasun fisiko edo psikikoa eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzetarako (2021eko ekainaren 30eko 128. EHAA).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2020ko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena 2020-2021 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko dirulaguntzetarako, eta mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko dirulaguntzetarako.

